



Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




abduzitu erakarri-xurgatu bezala, menpe	...edo 70eko hamarraldian estralurtarrek abduzitzeko aukerakoa zenirudien.	147
adigaldu arreta gabe	Adigaldu samar zihoan etxerantz Iruñeko alde zaharretik; Mercaderes kaleko etxe zahar berritu bat zen.	37
adoretu animatu	Baja eman dut, orain ez dago beharrik, zure alaba galdu bat delako alde egin du, zeuk adoretu zenuen eta ez da itzuliko...	279
ahitu erabat nekatuta, indar gabe	Artean menstruaziorik izan gabeko neskatoa, egun guztia basoan bakarrik [...], ahitu arte negarrez jardunda, lotan geratua beharbada.	147
ahots beheran ahapeka, isilka	...poliki-poliki ondoratu zen Engraxi, eta ahots beheran galdetu zion.	132
aieneka negarraldia	...bere lehengusinek eutsirik, sabeletik zotin urragarriak eginez ateratzen zitzaion aieneka eten eta inarrosi batean bihurrikatzen zen.	45
aiherkunde gorrotoa, herra	Floraren aiherkunde hark grazia eta guzti egingo ziokeen, ahizpa ez balu, eta oso gaiztoa zela seguru jakiteak urduri jarriko ez balu.	53
akelarre zeremonia diabolikoa	...alde egin zuten, egongelan akelarre bateko energia zuria eta beltza utzirik.	125
alarau orroa, oihu lazarria	...eztarritik ozta-ozta ateratzen zitzaizkion alarau itoak eginez, zain daukazun erromenari joaten uzteko ahalegin alfer batean hiltzen baitira.	264
albait lehen ahalik eta lasterren	Egin diezazkietela argazkiak, eta gorde ditzatela albait lehen .	16
alderatu erkatu, konparatu	...prozesu guztia errepikatuko dugu eta, horrela, alderatzeko materiala izango dugu...	91
aliritzira ausaz, zoriz	Ez zen inprobisatzailea, ez zuen lardaskeriarik egiten biktimak aliritzira edo halabeharrak eskaini bezala aukeratu.	230
alozekiko tolesak dituen, izurrak	Takchenko doktoreak gerrian estutzen zitzaion alozekiko gona zabal batean zabaltzen eta alde batean lotzen zen laborategiko bata bitxi bat jantzi zuen.	343
alper arrabola, zilindroa zapaltzekoa	...ia begien aurrean ikusten zuen aita [...] altzairuzko alper handi batekin hostore-xaflak oretzen...	162
altzifre zipresa, hilerrietakoa	Altzifre bakar bat zegoen sarreratik eskuinera, aurreraxeago zume negarti bat eta beste muturrean pago bat.	156
antigoaleko antzinakoa	Atea zabaldu zuen, erakustoki gisa erabiltzen zuen antigoaleko mahai baten gainean utzi zituen giltzak eta lantegira sartu zen...	38
apatx-marka apoen, animal. behatzen marka	— Ez, ez zegoen beste hozkadarik, baina bai apatx-markak .	21
apetatsu kapritxosoa, gurari bitxiak ditue	— Beste jeinu bat ere bada, Mila eta bat gauetako ipuinetan agertzen diren horietakoa bezalakoa, ahaltsua, apetatsua eta beldurgarria [...], Mari...	139
arbuio mespretxua, errefusatzea	Freddyren errebeldia eta arauen arbuioa , koldar bat, bere amari edo niri ateratzen digun dirua txirriak erraz zorabiatzeko gastatzen duen bitartean...	63
areagotu indartu	...zure komentario horrek horixe bera lehenago beste nonbait, beste testuinguru batean ikusi izandako inpresioa areagotu baizik ez zidan egin.	293
arrail zartadura, arrakala	...esan dizut alderdi honetan ibaia landareen artetik doala, hormek eratzen duten arraila moduko batetik.	69
arrakala zartadura, pitzadura	...ibaiak zulatutako arrakala hartan sartuta, uraren hats minerala baizik ez zegoen <i>txantxigorriari</i> zerion urrin melenga, koipetsuari lehia egiteko.	72
arrautzak eduki ausardia edo kemena izan	...eskola zaharreko tipoa zen, berari bai, gustatzen zitzaiona [...] inspektore izar hari aurpegi emateko arrautzak zituelako seguru asko, ustez behintzat.	287
arrenka jardun mesedez eta mesedez eskatu	Erreguka, negarrez eta arrenka jarduten dute, badakitelako emakumea gabe ez direla ezer.	128
aski nahikoa	Beharbada aurrekoek ikusi ez zuten zerbait ikusi zuen hark, susmoa piztu zion zerbait, eta aski izan zen heriotzari otzan-otzan men ez egiteko.	77




atoskorrago atseginagoa, erakargarriagoa	Euria, pixka bat lehentxoago hasia, trumoika ari zen kanpoan, eta etxeko giroa atoskorragoa bihurtu baizik ez zuen egiten.	402
atsekabe disgustua	—Eta nik ez dut askorik lagundu –jarraitu zuen Rosek, atsekabe pixka batez, Amaiari behinola izan zen neskatoa gogoratu zion mainatxo bat eginez.	318
atzemaile harrapatzailea	—Badu bere logika –esan zuen Jamesek. Atzemaile naturala zarelako egin zinen beharbada polizia, izebak dioen bezala.	135
auka likena	Zuhaitz batetik auka puxkatxoak kentzen ari zen...	417
axuri bildotsa, arditxoa	...Ainhoa besoetan astebete inguruko axuri bat zuela...	87
azkenburuko postrea	Baliteke neskak azkenburukoetan jatea eta apurren bat jantzira erortzea.	34
aztikeria sorginkeria	Iriarteren ahotsak aztikeriaz bezala ekarri zuen bat-batean errealitatera.	293
aztore hegazti harrapakaria (<i>azor</i>)	...bere destaina eta maiestatea erakutsiz eta arima aztertzen ari balitzaio bezala zerutik begira zegokion aztore baten begirada desafiatazalea ikusiz.	350
babarrun indaba	Gartzaingo taberna batean primerako babarrun beltz batzuk jan ditugu...	127
bailara eskualdea	Orduan Elizondora itzuli zen... Ez zuela maite uste zuen leku hartan etxe bat erosi zuen, eta harrezkero ez zen atera Baztango bailaratik .	341
baldarkeria trauskilkeria, ganorabakokeria	...biraka zebilen dantzari taldearen baldarkeriaz jostatuz.	82
beharturik sentitu kakalarri izan	...kaka egiteko leku zehaztu bat ere bagenuen, behartzen ginenean joateko, egur bila ari ginenean kakarik ez zapaltzeko batez ere.	145
behinola aspaldi, antzina	Etxea erosi zuten, Jamesek behinolako lantegian instalatu zuen estudioa, [...] hurrez beteko zutela promesa egin zuten.	38
beila esnatuta egon gauean (<i>vigilia</i>)	...zarata zuri hark hartzen zion beti burua, goiza argitu baino lehen esnatzen zenean, eta bukatu gabeko beila baten hondarrak balira bezala jarraitzen zion.	9
belus terziopeloa	...handitik txikira ordenatutako dorre batean pilaturik, eta ondoan belusezko zakutxo bat.	240
bereizmen zehaztasuna	—Erabakigarria zera da, bi zatiak elkarren segidakoak direla eta haril beretik atera direla –esan zuen, bereizmen handiko bi argazki erakutsiz...	35
beretu bere egin, bereganatu	—Ez nahitaez; elizak kristautu egin zituen areago, errotik ateratzen zaila iruditzen zitzaion ohitura pagano bat beretzeko .	157
bermatu apiatu, finkatu	...esan zion emazteak, bururdian bermatu eta bere aldeko gau-mahaiko argia itzaliz.	428
berrespen aurrekoa ziurtatzea, konfirmazioa	Denak gora begira irauli zituenean, berrespen eta gogait bitarteko erdi irribarre bat egin zuen, eta hatz mehetako batekin seinalatuz, esan zuen...	136
bertatik bertara hurbiletik, hur-hurretik	...eta orain bertatik bertara ezaguturik, igarotzen zenean denengandik erreberentzia bat espero zuela zirudien ematxar harro bat iruditzen zitzaion.	287
bidegabekeria gehiegikeria, injustizia	Izan liteke haurtzaroan bidegabekeriak sufritu izana...	91
bildukin zerbait estalkiarekin, zakutotxoa	Mahai gainean zetzan zeta beltzezko bildukina ikusi bezain laster bukatu zitzaion negarra.	131
borda txabola	Borda ez zen ikusten errepidetik.	256
burubide gabeko ganorabakoa, sengabea	...fortunaren gorpila ikusi zuen, burubiderik eta legerik gabeko tximino batzuek gobernatzen zuten...	133
bururdi buruko handia	...esan zion emazteak, bururdian bermatu eta bere aldeko gau-mahaiko argia itzaliz.	428




buxatu oztopatu, bidea eragotzi	— Bai. Hasieran beldur nintzen Floraren arazo bera izango ez ote nuen, hodiak buxatuta , baina dena bere lekuan omen zegoen, itxuraz behintzat.	67
dasta gustua, zaporea	...ezpainetako margo lodi, distiratsu bat, fruituen dasta duena –argitu zion Amaiak.	78
despota botere gehiegikeriazko agintaria	Flora despota menderatzaile hark berak baino lehen lotu zituen muturrak...	463
destaina mespretxua, gutxiespena	Amaiak begiak jaso zituen, eta harrituta geratu zen lurra baino ehunen bat metro gorago geldirik egonez eta bere destaina eta maiestatea erakutsiz...	350
destatu apuntatu	Amaia asaldatu egin zen, deia bat-batean iritsi balitzaio bezala. Eskua gerrira eraman zuen, arma atera eta nora gabe destatu zuen.	377
diosal agurra	— Ez saiatu, nagusi, entzun diot komisarioari, nire lankidetzara osoa izango duzu –esan zion diosal militar bat parodiatu eta gelatik atera baino lehen.	36
doluminak eman atsekabea adierazi	Amaiak jende guztiak gurasoei doluminak eman arte itxaron zuen...	46
durduza zalantza, nahasmena	...harrizko hormetan errebotatuz gordetzeko moduko oihartzun bat egin zuen; une batez durduza eragin zien...	71
egokitu bat etorri	— Nire iritzian bai, lesioak urkatu nahi izanarekin ongi egokitzen dira.	197
egotzarazi leporatu, errua bota	...oportunista, berriz, etorri-berri bat da, eta ez da lehenengo hiltzaileari omen egiten ari, bere krimena hari egotzarazten saiatzen baizik.	272
egurats atmosfera	— Nahiko ongi kontserbatuta dago egurats zabalean bost egun igarora izateko –komentatu zuen teknikarietako batek...	32
ehokera ehotzeko era, birrindua izatekoa	...pikorak egiten ditu eta beste ehokera bat du, usaina ere aldatu egin zaio.	239
ehortzi lur eman, lurperatu	...amari itzuliko diogu, ehortzi egingo dute... Loreak jarriko dizkiote...	300
ehorzketa lur ematea, lurperatzea	— Inspektorea, Iruñeko egunkarietatik deitzen ari dira; batzuk hileta eta ehorzketa emateko interesaturik daude...	153
elezahar kondaira, leienda (kontakiz hist.)	Amaiak irribarre egin zuen, haurra zelarik izeba Engraxik kontatutako elezaharren oroitzapenak gogoratu.	97
elixir edabe edo edari magikoa	...hitz haietan zundatuz haietatik elixir bat, neska haien begi hilen atzean falta ziren arimen esentzia bizia atera behar balu bezala.	150
emagaldu urdanga	Beraiek merezi izan zuten, prostitutak balira bezala jantzita, emagalduen moduan gizonak probokatu...	472
ematxar ospe txarreko emakumea	...eta orain bertatik bertara ezaguturik, igarotzen zenean denengandik erreberentzia bat espero zuela zirudien ematxar harro bat iruditzen zitzaion.	287
eralgi dirua xahutu, gastatu	...A gripeak sortu zuen alarmarekin, milioiak eta milioiak eralgi zituzten gobernuak ezertarako ez ziren txertoetan.	142
erantzuki gaizki eginagatik kritika	Bazekien zer zetorren orain: aita xuxurlaka jaulkiko zituen erantzukiak , amaren oihu itoak...	131
erdeinu gutxiespena, mespretxua	Erdeinu sakoneko keinu batek distiratu zuen emakumearen begietan, ahoa aitzo bat bezala zorrotzu zitzaion.	249
errai barruak, tripak	Elizondo zaharrago eta sakonago bat baizik, bere erraietan zeramana eta azkeneko hatsarekin hilko zena...	110
errekarri uharria, latsarria	Oraindik ere jatorrizko zorua zuen, errekarri handiz egina, eta baita tranpaltxo bat ere...	38
erresuminduta egon kabreatuta, amorrutz	Nire kontra erresuminduta zaudela uste dut, komisarioak ni jarri ninduelako kasu honen arduradun...	86
erretilu azpila, bandeja	...hitz egiten ari ginen bitartean, ez zion begirik kentzen erretiluari ...	137




errezel aurpegia estaltzeko zapi fina	...izumenezko giro berezi bat, hiletan zeudenen aurpegi guztietan zabaldua zirudien errezel mehe baten moduan.	153
errutsu mardula, sendala	Bi gizonak ezin argalagoak eta errutsuagoak ziren...	96
eskumikatu fededunen taldetik kanporatu	—Baina hiltzaileei ere lur ematen zieten kanposantuan? Eskumikatu egiten zituztela eta lur santutik kanpo ehorzten zituztela uste nue	158
eskumuin goraintziak	...auzitegiko idazkariarekin hizketa egona, eskumuinetarako egokia izango litzatekeen zeremonia batez epailea agurturik, gorpura inguratu zen.	13
espartzu belarkia, kordelak, sokak... egite	...pasmu-belarraren ura edan behar izan nuen, eztarria espartzuzko abarketa baten moduan geratu zitzaidan arte.	146
etsimen desesperazioa	Eskutik helduta, aldi berean esker onezkoa eta etsimenezkoa zen keinu batez estutu zion.	268
etsimenak harturik kontra gertatua etsipenez onartz	—Telebistan ere bai? —Amaiak etsimenak harturik begiratu zion Jonani.	103
eustorma babes horma	...inbidia ematen zion keinu hura izan zen emozioen eustorma hautsi ziona...	161
ezin eraman ezin jasan	Ezin ditut eraman arratoiak, eta gero kaboak esan dit ez dakit zer zela...	72
ezponda aldapan dagoen lur-zatia, muna	Amaia Jonanen eta Zabalza inspektoreordearen atzetik jaitsi zen ezpondan behera.	69
fardel paketea	...haitzulo horietako batean sartzen eta handik pixka batera ateratzean —esan zuen sasitza erakutsiz—. Iritsi zenean fardel bat zekarren eta irteetan ez.	395
ferekatu laztandu	Jamesek emeki-emeki ferekatzen zion burua, eskuaz ilea igurtziz.	220
flakia ahultasuna	Besoez inguratu zuen, eta flakiak eman behar ziola iruditu zitzaion Amaiari, senarrak besarkatzen zuen guztietan bezala.	39
ganibet aiztoa, kutxiloa	Gorputzean dituen ebakiak axalekoak dira; arropa urratzeko baizik ez dira. Oso gauza zorrotzen batez egin dira, ganibet batez, kuter batez edo bisturi batez.	17
gantxigor txintxorta, txerri gantzez egina	Gurina, irina, arrautzak, azukrea, legamia eta gantxigor frijituak, opil bat egiteko; antzinatik datorren errezeta bat.	18
garaño hazitarako (animalia) arra	Burua non daukan dakien edozein emakumek garaño on bat bilatuko luke horretarako.	143
garondo kokotea, buruaren atzeko aldea	Haizeak ez zuen zelatatzen, jazarri baizik [...] gorputza lainoa balitz bezala inguratuz, garondoan arnastuz eta eragiten zion beldurraz barre eginez.	357
gogaikarri jasanezina, aspergarria, astuna	...berria eta beste edozein baino gogaikarriagoa gertatzen zitzaion emozio bat.	241
gogait fastidioa	Denak gora begira irauli zituenean, berrespen eta gogait bitarteko erdi irribarre bat egin zuen, eta hatz mehetako batekin seinalatuz, esan zuen...	136
gogoberotuta animatuta	...Jamesengatik ez zuen horren beldurrik, bide guztian isildu ere ez baitzen egin, basoaren neguko edertasunak gogoberotuta .	391
gogokidetasunez konformidadez, adostasunez	Amaiak gogokidetasunez begiratu zion, eta Engraxik irribarre egin zion, bere ordeko hortz dotoreak erakutsiz...	147
gogoratu akordura ekarri	—Eta nik ez dut askorik lagundu —jarraitu zuen Rosek, atsekabe pixka batez, Amaiari behinola izan zen neskatoa gogoratu zion mainatxo bat eginez.	318
goragale botaka, oka egiteko gogo larria	...beste usain meheagoarekin nahasturik sartzen zitzaion sudurretik. Hatsanka egin zuen goragaleari eusten ahaleginduz...	73
gorpu hilotza, hildakoa	...keinua gorrotagarri bat osatuz zeuden zabaldua gorpu hilduratuaren alde banatan...	70
goseak akabatzen egon goseak hilik egon, gose handiaz	— Goseak akabatzen nago —esan zuen Jamesek, jostari.	137




grinatsu pasioz betea, bizi-bizia	...Xantirekin izandako topaketa grinatsu , zorabiagarri eta sukartsu haiek gogoratzen zizkioten, katuaren gisako urruma batzuetan luzatzen zirenean...	289
halabehar zoria, adurra, patua	Eta kamerak grabatu izana, ez dut uste halabeharrak eragina edo izaki horrek, zuk deitzen diozun bezala...	419
handientsu handia eta dotorea (<i>majestuoso</i>)	...pasabide sekretuen bidez iristen da bere bizileku dotore, handientsu , aberastasunez betera.	140
hanpatu puztu, handitu	...herritarrek inguratzen eta ate-markoak hanpatzen zituen hezetasunak, are trinkoagoa eta astunagoa egiten zuen giroa...	368
hantura handitua (zerbaitek sortua)	Estrangulatzeko erabilitako kordela ez zen ikusten argazkian, lepoaren hanturarengatik .	32
haril mataza, bobina	— Erabakigarria zera da, bi zatiak elkarren segidakoak direla eta haril beretik atera direla —esan zuen, bereizmen handiko bi argazki erakutsiz...	35
harraska garbitzeko konketa	James marmol grisezko pieza bat garbitzen ari zen xaboi-urez betetako harraska batean.	38
harrezkero geroztik	...ultzera edo gastritis bat edo horrelako zerbait izan zuen eta harrezkero maiz izan du, asteburuan batez ere, gehiegi edan eta batere ez jan ondoren...	236
hartxintzar harritxo piloa	...horma malkarren eta uraren ertzaren artean metro eta erdi hartxintzar lehor baino gutxiago zegoen alde banatan.	69
hasperen egin suspiratu, arnasa luzatzea	Berriro gurasoei begiratu nien, hasperen egin zuen eta Iriarteri hitz egin zion.	295
hats sunda, kiratsa	...ibaiak zulatutako arrakala hartan sartuta, uraren hats minerala baizik ez zegoen <i>txantxigorriari</i> zerion urrin melenga, koipetsuari lehia egiteko.	72
hatsanka egin arnasestua, arnasa hartze arina	...beste usain meheagoarekin nahasturik sartzen zitzaion sudurretik. Hatsanka egin zuen goragaleari eusten ahaleginduz...	73
hatz kosko atzamarretako junturak	...eta negar malkoak atera zizkidan kaskarreko bat eman zidan hatz-koskoekin .	146
hazpegi aurpegi ezaugarriak (<i>rasgos</i>)	...eta aurpegia, batez ere, zurbil eta asaldatuta, ur izoztutan garbituz hazpegiak lausotu izan balitzaizkio bezala.	148
haztamuka ikusi gabe, itsu-itsuan	Haztamuka betidanik hor zegoen hiru kaxako multzo bateko zur landuzko kaxa bat bilatu zuen.	374
herra gorrotoa, hegigoa	Eta orain Montesena kontra zuen herra hura; eskola zaharreko tipoa zen, berari bai, gustatzen zitzaiona...	287
hilduratu mindua, mortifikatua	...keinu gorrotagarri bat osatuz zeuden zabaldua gorpu hilduratuaren alde banatan...	70
hipnotiko gatibatzen duena	...katilu bete infusio lurruntsu eskaini zionean, suaren bero hipnotiko hartan minutu batzuk galdu zituela ohartu zen.	126
hostore-xafla hojaldre lamina	...ia begien aurrean ikusten zuen aita [...] altzairuzko alper handi batekin hostore-xaflak oretzen...	162
hozkada haginkada	— Ez, ez zegoen beste hozkadarik , baina bai apatx-markak.	21
HPCLC kromatografia biokimikoa	Eta hemen daukagun hau —esan zuen Gonzalez doktoreak— HPCLC a da, laginetako irin motak desintegrazteko erabiliko dugun tresna...	344
hutsal garrantzi gabekoa, baliogabea	...ondoren, autoan sartu eta gogoeta hutsaletan murgilduta gidatzen zuen: zarata zuri hark hartzen zion beti burua...	9
ifrentzu atzeko aldea (aurkia / ifrentzua)	...eta hostoen ifrentzuen zilarrezko distirak erakusten zituzten haizetxo arinarekin.	95
ihartu lehortua, sikua	Dozenaka loretxo, maila desberdinetaraino ihartuak , zituen buruaren inguruan...	259
ildokatu ildoak markaturik dituena	Mota berekoak dira, marrazki ildokatu bera dute, baina hauek makillaje-arrasto gutxiago dute.	87




ileak laztu zirrara izugarria nozitu	...elektrizitate-indar estatikoaz gorputzeko ile guztiak lazten dizkizun ekaitz horietako bat baletor bezala.	124
imintzio keinua	...ahoaon aizkoraz egindako epaia zirudien imintzio gogor, lehorra zuela.	412
in crescendo gehiagora, gero eta gehiago	...kontuan hartu gaizkile hauek ez direla hutsetik sortzen, in crescendo joaten dira.	91
inarrosi astinaldia, mugimend kontrolgab	...bere lehengusinek eutsirik, sabeletik zotin urragarriak eginez ateratzen zitzaion aieneka eten eta inarrosi batean bihurrikatzen zen.	45
indarge ahul, makal	...bizkarrean pisu handia balu bezala, eskuak belaunen gainean indarge utzita...	24
inon bada berebizikoa, bakarra	Senarretarako hartu zuen gizagaixo horrekin, txirrijale eta alferra, inon bada ...	167
inondik ere ziurrenik, duda gabe	Besteek baino denbora gehiago iraun zuen hiltzeko, inondik ere .	71
inplasio barrurantz egin eztanda	...maitasunetik gorrotora une batean alda daitekeela uste du, maitasuna bat-batean hausten dela, bihotzaren inplasio batean bezala.	65
interesaturik egon jakin nahian egon	...Iruñeko egunkarietatik deitzen ari dira; batzuk hileta eta ehorzketa emateko interesaturik daude , eta komunikatu bat egiteko aholkatzen digute.	153
iradoki sujeritu, aditzera eman	...nolanahi ere hori ez da txarrena; elkarrizketan kazetariak Baztango bailaran serieko hiltzaile bat dabilela iradokitzen du...	92
irauli bueltatu, azpikoz gora ipini	Banan-banan irauli zituen, eta hondamendiaren mapa marraztu zioten ariman.	324
irmo tinko, sendo	San Martin zutitu eta egiaztapen biribilak egiteko ohitura duenaren ahots irmoaz hitz egin zuen.	34
irudipen susmoa, errezeloa	Amaiari irudipena eman zion heriotza hark ez zuela erabat asebate hiltzailea...	77
iruzur-zama engainuaren pisua	...hala ere, bere desilusio- eta iruzur zamaz umoretxartzen jarraitzen zuen lapurreta sentsazio hura utziz.	284
itzuri saihestu, libratu	...egongela osoan bira eta bira, eskuz argizariztatutako altzari astunak eta norbaitek Bagdagen ehundutako alfonbrak itzuriz .	82
izan liteke baliteke, igual	Izan liteke haurtzaroan bidegabekeriak sufritu izana...	91
izorrai izorra hadi, kaltea zuretzat	— hor duzu. — Izorrai —xuxurlatu zuen Rosaurak.	136
izularritu laztura, izu-laborria sentitu	...Engraxiren begirada izularrituaren aurrean burua erakutsiz.	133
jazarri atzetik jarraitu (harrapatzeko)	Haizeak ez zuen zelatatzen, jazarri baizik [...] gorputza lainoa balitz bezala inguratuz, garondoan arnastuz eta eragiten zion beldurraz barre eginez.	357
jeinu genioa, izaki mitologikoa	— Beste jeinu bat ere bada, Mila eta bat gauetako ipuinetan agertzen diren horietakoa bezalakoa, ahalsua, apetsua eta beldurgarria [...], Mari...	139
jendetasun handiko adeitsua, arretatsua eta atsegina	...oso interesgarria izaten da horrekin lan egitea. Jendetasun handikoa da gainera.	138
jostari jostalari, modu dibertigarrian	— Goseak akabatzen nago —esan zuen Jamesek, jostari .	137
jostatu zerbaitekin dibertitu	...biraka zebilen dantzari taldearen baldarkeriaz jostatuz .	82
kafe-uxual kafea eta orujoa	...atera bi kopatxo kafe-uxual eta eseri hemen nire aurrean.	144
kamusada dezepzioa	...zama nekagarri bat kendu duela sentitzen duenaren kamusada eta arintzearen arteko nahaste hori adierazten zuen keinu batez.	60




kapar parasittoa, kantsagarria	...horregatik ez da bakarrik utzi behar emakumea, kaparra uxatu behar duenean.	128
karrakatu harraskatu, markaz bete	Makilatxo batekin zuhaitz baten azala karraskatzen ari zen...	144
kirrinka soinu bizia (<i>chirrio</i>)	Bira bat itxiegi hartu zuen eta gorpilen kirrinkak zein arreta gutxiz zebilen ohartarazi zion...	10
kitzikatu zirikatu, kilikatu	Malda errepidearen kontrako zentzuan zegoen eta erretxin-usain sarkorrak sudur-mintzak kitzikatu eta azkura sortu zion.	465
koipu arratoi-igaraba antzekoa	— Koipu bat –argitu zuen poliziak—. Koipuak Hegoamerikatik ekarritako ugaztun batzuk dira.	72
kurruskatsu kurruskaria, kraskatze soinua eg	Amak kruasan kurruskatsuak eta mahaspasekiko ogia erretzen zuen etxeko labean, eta orduetan irauten zuen...	82
lardakeria narrakeria, txapuz	Ez zen inprobisatzailea, ez zuen lardakeriarik egiten biktimak aliritzira edo halabeharrak eskaini bezala aukeratuz.	230
larderiatu errieta egin, ohartarazi	Amaiak isil begiratu zien, erantzun gabe. Inoiz huts egiten ez zuen larderiatzeko taktika bat zen...	96
lazgarri izugarria, oso ankerra	...azkeneko unera arte izan zuen bizirik irauteko borroka eta benetan lazgarria zirudien irribarre-parodia bat baizik.	77
legamia altxagarria (<i>levadura</i>)	Gurina, irina, arrautzak, azukrea, legamia eta gantxigor frijituak, opil bat egiteko; antzinatek datorren errezeta bat.	18
lekeda kola, gai itsaskorra	...plastiko- edo lekeda -hondar puskatxo batzuk ikusten ziren.	77
letania otoitz antzekoa, eskari jarraitua	...berak baino lehen lotu zituen muturrak, Fermin inozo hark, emakumearen letania hipnotikoak liluraturik, zehazki ematen zion informazioa baliatuz.	463
lohasma lozorroa, logura astuna	Segituan harrapatu zuen berriro lohasmak ; esnaldi bare hartan ozta-ozta ohartzen zen bere buruaz...	373
losintxa koipekeria, zurikeria	Badakit, zure senarrak esanda, ez zaizkizula gustatzen konplimentuak eta losintxak , baina eskerrak eman behar dizkizut...	346
makurra maltzurra, doilorra	—“Eduenezuri da” esan zenuen, gogoratzen zara? Makurra da, baina nik ere inpresio horixe izan nuen...	293
malapartatu madarikatua, gaitzesgarria	...gezurti, parte txarreko, malapartatu deitu zidan...	146
malkar bidexka aldapatsua eta txarra	...horma malkarren eta uraren ertzaren artean metro eta erdi hartxintzar lehor baino gutxiago zegoen alde banatan.	69
mandio lastategia, belarretarako ganbara	...Alemanian nekazariak gorritz margotzen dituzte mandioak eta izarrak jartzen dizkiete gainean.	142
margul zurbil, kolore gabe	Montes inspektorea, aurpegia zurbil eta margul , beregandik bi metrora gelditu zen eta dardaraz hasi zen, malkoak aurpegian behera erortzen zitzaizkiola.	457
marmar zurumurrua, xuxurla	Baztan ibaiaren marmarrek baizik ez zuen eteten paisaiaren isiltasuna.	391
marmario berbaroa, marmarra	Eseri eta Montesek atea itxi eta marmarioa isildu arte itxaron zuen.	29
men egin obeditu	Beharbada aurrekoek ikusi ez zuten zerbait ikusi zuen hark, susmoa piztu zion zerbait, eta aski izan zen heriotzari otzan-otzan men ez egiteko .	77
menstruazio hilekoa	Artean menstruaziorik izan gabeko neskatoa, egun guztia basoan bakarrik [...], ahitu arte negarrez jardunda, lotan geratua beharbada.	147
mindulin itxurata, azalutsa	...aitortu beharra dago poliziak garai hartan zuen pentsaera mindulina eta lotsakorra zela, jainkozalea ez bazen.	434
mistiko espirituala	...munstro hark asmatu zuen plastika ia mistikoak bere eragina lortzen zuen.	70



muzinduta purrustaka, mainaka, negarrez bezal	...uzkurtuta eta haur txiki baten moduan muzinduta zegoen.	128
neskato neska gaztea	—Eta nik ez dut askorik lagundu –jarraitu zuen Rosek, atsekabe pixka batez, Amaiari behinola izan zen neskatoa gogoratu zion mainatxo bat eginez.	318
nozitu jasan, pairatu, sufritu	—Estresak –jarraitu zuen izebak– alerta-maila guztiz bizi bat sortzen du nozitzen duenarengan; lo arina, amesgaiztoak...	380
oilanda oilo gazte apaina, deigarria	Johana polit-polita jarri zen, ikusi duzu, eta gehiago kontrolatu behar nuela esanez hasi zitzaidan aita, adin horretan oilanda jartzen direla...	278
oinaze sufrimendua	Hiltzaileak bere larritasuna, oinazea , kondena ikusi zuen, eta barrez hasi zen, barreak dena bete zuen arte.	292
omen egin ohoratu, goretsi	...oportunista, berriz, etorri-berri bat da, eta ez da lehenengo hiltzaileari omen egiten ari, bere krimena hari egotzarazten saiatzen baizik.	272
ondoratu hurbildu, gerturatu, hurreratu	...itxaron zuen, langileek Ainhoaren izenik oraindik ez zuen marmol grisezko harri lauza batez estali berria zuen hilobi-zulora ondoratzeko .	46
oneratu gabe normaldu gabe	—Nola litekeen –zezelkatu zuen Montesek, koipuearekin izandako gertakaritik oneratu gabea baitzirudien oraindik.	73
orban mantxa	Zerena da aurpegian duen arrosa-koloreko orban hori?	78
otzan-otzan mantso-mantso	Beharbada aurrekoek ikusi ez zuten zerbait ikusi zuen hark, susmoa piztu zion zerbait, eta aski izan zen heriotzari otzan-otzan men ez egiteko.	77
pagano kristautasun aurreko errito-sines	—Ez nahitaez; elizak kristautu egin zituen areago, errotik ateratzen zaila iruditzen zitzaion ohitura pagano bat beretzeko.	157
papar bularraren goialdea, bulargaina	Hiltzaileak paparretik beheraino urratu zuen jantzia, eta barruko arropa eta soinekoaren bi aldeak gorpuaren alde banatara bereizi zituen.	33
paraje ingurua	...beste zuhaitz mota batzuekin nahastuta, paraje haiek mila eratako kolorez, formaz eta kontrastasunez betez.	391
parodia imitazio satirikoa, umore iraing.	Amaia neskaren ondoan belaunikatu zen, haren aurpegiaren imintzio hotzari begira; irribarre baten parodia zen ia.	70
partekatu erdi bana erabili, eduki...	...haiek bakarrik partekatzen zuten gauza baliotsuren bat kendu izan baliote bezalako sentsazioa izan zuen...	136
pasiera osteratxoa, bueltatxoa	— Pasiera bat egin du herrian...	127
patologo mediku espezialista	Auzitegietako edozein patologok aitortuko du Y grekoaren forman egiten diren ebakiak basatiak direla egiaz...	78
patu zoria, halabeharra	James berea zuen, eta bera Jamesena, eta bizitzaren itzala ere izan baino askoz lehenagotik erabakitako patua zen hori.	222
pertzepzio sentsazioen interpretazioa	...metodoa, frogak, datuak erabiltzen jakiteaz gainera, pertzepzioak , ezkutuan dagoena sumatzeak berebiziko eginkizuna duen lanbide bat.	135
pikor garua, granoa	... pikorrak egiten ditu eta beste ehokera bat du, usaina ere aldatu egin zaio.	239
plantigrado hartzak-eta antzekoak	Ni ez naiz aditua plantigradoetan , baina ados nago fantasma-ehiztariarekin.	101
profanazio mespretxuzko tratua zerb. erresp	...sexua eta bere haurtzaroaren kontzeptuaren profanazioa sinbolizatzen duen gorputzeko lekuan ilea	89
profil ezaugarri jakin batzuk	—Ondo, hortaz; profil horretara egokitzen den eta alderdi horretan dabilen guztia aurkitu beharko da...	76
sarrail irekitzeko-ixteko mekanismoa	Giltza sarrailan sartu zuen eta lasaitasunezko hasperen bat egin zuen...	242
sarraski hilkuntza, masakrea	...Ingurumeneko Bulegokoek hartza zela uste zuten zakurraren sarraski hura ere.	101



sarri zarratua, itxia	...sarbide zaila duen leku bat da, aurrekoen nahiko desberdina; landaretza sarria dago, errepidetik ez da ibaia ikusten.	67
sastrakadi landare-zuhaixka askotariko gun	...ote, txilar eta iratzez osatutako sastrakadia ziren baztandar-belaunaldi askok zapaldu zuten alfonbra...	94
segituan berehala, atoan	Segituan harrapatu zuen berriro lohasmak; esnaldi bare hartan ozta-ozta ohartzen zen bere buruaz...	373
setatsu temati, burugogor	...eta burlaizezko doinu hura nola erabiltzen zuen, gaizki hazitako neska setatsu batekin ari balitz bezala.	53
sigi-sagatsu zeharka-meharka	Elizondo inguratzen zuten baso sarrietan barrena sartzen zen gorako errepide sigi-sagatsuari arreta gehiago jartzera behartu zuen, bada, bere burua.	10
sinesbera edozer erraz sinesten duena	...mendeetan irauten duten sinesteetan oinarritzen dela mitologia. —Ezjakin sinesberak direnentzat.	140
sinesgogor sinestu ezinik	...eta handik minutu baterako Ernestoren aurpegia sinesgogor agertu zen bulegoko atetik.	238
soropil belardi ondo jagona (<i>cesped</i>)	...belarra lorategirik hobereneko soropiletan bezain berdea eta fina hazten zen soilgunetxo batzuetan zabaltzen zen.	96
suhartasun kartsutasuna, pasiozko izaera	Denak harritu zituen hura esateko jarri zuen ohiz kanpoko suhartasunak , baina Flora txundituta zegoen.	408
taxidermista animali hilak diseatzen dituen	—Ehiztari batek, basozain batek, artzain batek —esan zuen Jonanek. — Taxidermista batek —azaldu zuen San Martini laguntzen zion teknikariak...	76
teluriko lurrekoa	...zenbaiten ustean, izadiko edozer gauzaren forma har dezakeen espiritu teluriko eta apetatsu bat...	140
tema gogo tinkoa	Keinu hark urratu zion bihotza, aita hark alabaren zerraldoa zen esku sinbolikoa ez askatzen jartzen zuen temak .	160
tranpaltxo eskailera burua (<i>rellano</i>)	...jatorrizko zorua zuen [...] eta baita tranpaltxo bat ere, antzinako garaietan ardo edo olio gordetzeko erabili izan zen itxitako pasabide batera.	38
troka zulo handia, hobia	Maldan behera jaitsi behar da —esan zuen Jonanek, troka seinatuz eta barkamena eskatzen ari balitz bezalako keinu bat eginez...	12
tupituta zarratuta, pilatuta	...zuhaitz hostogabeen artean; hain tupituta zeuden adarrak, non alderantzizko egunsenti baten itxura baitzuten...	69
turrusta txorroztada	Eta uraren turrusta lepoan eta bizkarrean behera irristatzen sentitu zuen.	40
txirri porroa	...ohetik sofara, sofatik ohera, garagardoa edaten, Playean jolasean eta txirriak erretzen igarotzen du egun osoa —esan zuen Rosek nazkaturik.	62
txirri-erretzaile <i>porrero, porreta</i>	—Egunen batean haurrik baldin badut, ez nuke nahi Ros deitzerik, txirri-erretzaileen izena da.	66
txirrijale txirri kontsumitzaile porrokatua	Senarretarako hartu zuen gizagaixo horrekin, txirrijale eta alferra, inon bada...	167
txolarre artaxori	...bilduta biribil bat eginda zeudela ikusi nuen; haiengana joan eta erdian hilda zegoen txolarre baten beila bat antolatuta zutela ohartu nintzen.	294
umoretxartu kabreatu	...hala ere, bere desilusio- eta iruzur zamaz umoretxartzen jarraitzen zuen lapurreta sentsazio hura utziz.	284
urkatu ito	—Nire iritzian bai, lesioak urkatu nahi izanarekin ongi egokitzen dira.	197
urragarri bihotza zartatzen duena	...bere lehengusinek eutsirik, sabeletik zotin urragarriak eginez ateratzen zitzaion aieneka eten eta inarrosi batean bihurrikatzen zen.	45
urratu tarratadaka apurtu	...Johanaren jantziak urratu zenituen, irakurrita gogoratzen zinen bezala, eta hain berotuta sentitu zinen non gorpua bortxatu baitzenuen.	305
urratu beharrean hondatzeko puntuan, indartsu	... <i>Te Deum</i> -a kantatzen nuen latinez, eztarria urratu beharrean , eta etxeratzen nintzenean ahotsik gabe egoten nintzen ia beti.	146



urrin sunda, janari usaina	Dozena erdi bat opil koipetsuak beren urrin gozo, koipetsua zabaldu zuten mahaikideen artean.	405
urruma kurruka	...Xantirekin izandako topaketa grinatsu, zorabiagarri eta sukartsu haiek gogoratzen zizkioten, katuaren gisako urruma batzuetan luzatzen zirenean...	289
uxatu aldendu, ohildu	...horregatik ez da bakarrik utzi behar emakumea, kaparra uxatu behar duenean.	128
uzkur kikilduta, beldurrez bezala	— Esan dizut ezin dudala —xuxurlatu zion uzkur — . Zergatik ez zoaz zu eta ni geratzen naiz hemen berarekin?	250
uztarpean menpean, gatibu bezala	...baina hogeita hamabost urte ditut eta ez daukat batere gogorik bizitzeko geratzen zaidana nire ahizpa nagusiaren uztarpean egoteko...	63
xarma enkantua, erakarpena	Autoa gidatzen ikasi zuenean hasi zen berriro basoko bideetan aurrera sartzen, basoaren xarmak liluraturik berriro.	94
xukatu lehortu	—Baina zuk lagundu behar didazu lehendabizi —esan zion ia ezintasunez. Mutilak malkoak xukatu zituen, baietz eginez batera zotinka jarraituz.	25
zafiro harribitxi garden-urdina	...ilobari begira geratu zen, berarenak bezain urdin biziak izandako eta orain zafiro gastatuak bezala lausoturik zituen begi haiek...	146
zangar adoretsu, kementsu, ausart	Haren segurtasun guztiak, zangar harropuztuaren itxurak eta are gaztetasunaren parte batek ere, desagertuak ziruditen.	24
zaurgarritasun erraz zauritua izan daitekeena	...Anneren aurpegiak ez zuen erakusten ustekabea eta zaurgarritasuna , azkeneko unera arte izan zuen bizirik irauteko borroka...	77
zerraldo hilkutxa	Keinu hark urratu zion bihotza, aita hark alabaren zerraldoa zen esku sinbolikoa ez askatzen jartzen zuen temak.	160
zezelkatu totelka, gaizki ahoskatu	—Nola litekeen — zezelkatu zuen Montesek, koipuearekin izandako gertakaritik oneratu gabea baitzirudien oraindik.	73
zirkinik ez egin mugimendu txikienik ere ez egin	Florak ez zuen zirkinik egin .	
zital jokatu gaizki, txarto portatu	Amaiari zital samar jokatu zuela iruditu zitzaion, harekin, hasieratik bertatik denean lagundu ziolarik.	453
ziurgabetasun inseguritatea	Ziurgabetasun -gariai bizi ditugu bailaran, eta formula berriek huts egiten dutenean, zaharretara jo ohi da.	394
ziztuzko txistu bidezkoa	...basajaunak zaintzen zituen ardiak urrunetik, eta otsoa agertzen bazen ziztu eginez artzainak esnatzen zituen; ziztuzko hizkera bat zuen...	139
zokomiran ibili ezkutuan begiratu, kirik egin	Jazarpen, exhibizionismo, zokomiran ibiltzeko aurrekariak dituen gizonezko guztiak bilatu behar dituzue...	91
zoli ozen	Zoli entzun zen, tren geltoki buruaren txilibitua bezala.	361
zume negarti sahats apala (<i>sauce llorón</i>)	Altzifre bakar bat zegoen sarreratik eskuinera, aurreraxeago zume negarti bat eta beste muturrean pago bat.	157
zundaezin ikertu ezina	...eta arimak egon behar zuen lekuan bi putzu ilun, beltz, zundaezin baizik ez zituela ikusten zuen...	292
zuri balakaria (<i>adulador</i>)	...ondoren, autoan sartu eta gogoeta hutsaletan murgilduta gidatzen zuen: zarata zuri hark hartzen zion beti burua...	9
zurrundu gogortu, tentsioan jarri	...oihu egin nahi zuen; gorputza zurruntzen zion eta erotu behar zuen izumenari kanporabidea eman nahi zion.	292